

La Oliva-ko Monasterioa

Los dos Monasterio de Sta. María –de La Oliva y de Tulebras– aúnan en la Ribera navarra el doble proyecto, masculino y femenino del Císter del antiguo Reino. La Oliva, en el municipio de Carcastillo, fue en su origen un monasterio de monjes de trabajo y oración, junto a las Bardenas Reales, bien ubicado en la frontera de Navarra y Aragón.

Hasieratik zistertarrek Nafarroako Erriberan sortutako hiru monasterio nagusienak La Oliva, Fitero eta Tulebras izan ditugu; La Oliva eta Fitero gizonezkoenak ziren, Tulebras, ostera, emakumezkoena. La Olivako monasterioaren berri xume bat eman nahiko nuke hemen.

Erdi Aro ederra

Monasterio honen jaiotze-data eztabaidatua izan da; baina, bestelako tradizioak 1134a aipatu badu ere, segurtasun hobez 1149an edo ezar daiteke beraren sortze-urtea. XII. mendean gaude, beraz, zinez monakatuaren historian zistertarren mendea izan zen hartan, eta Nafarroan ere monasterio-multzo jakin bat sortutako garaietan. Antso Jakitunaren erregealdia (1150-1194) erabakigarria gertatu zen sortzean eta ondoko bizitzari segurtasunik emateko.

La Oliva jatorriz da zistertarra, eta izaera horrek berez zekarren lanari beneditar klunitarrek baino garrantzi eta leku handiagoa ematea: monje-monjeak ere otoizlari eta langile izan behar zuten, ondasunetan pobre eta janean urri.

La Oliva hainbat borondate ezberdinek sustatutako ekinbidea izan zen, hasteko Aragoi eta Nafarroako Koroek, eta Bigorrako *Scala Dei* monasterioak elkartuta abiarazi zuten asmoa.

1150-1164. urteetan bildu zituen monaste-

rioak bere lehen ondasunak: Zarrakazteluko (*Carcastillo*) herria monasterioaren jaurerriko bilakatu zen 1166an, Erregek utzi eta herria Montearagongo monasterioari erosi zitzaionean. Domeinu berera bildu zen, gainera, beste zenbait herri eta leku (Figarol, Castelmunio). Ondoko jaurerri zabalagoaren lehen erdigunea izan zen hori.

1198an eraikita zegoen eliza, eta ondarea aberasturik, handik eta hemendik batutako ondasunekin: monje eta konbertsoen lana lehendabizi, ongile ezberdinen eskuzabalatasuna gero, mirabeen lanak eta errentak azkenik, guztiek lagundu zuten horretan.

Eta XIII. mendea ez zen maingua izan, alderantziz: Nafarroa-Aragoiko mugaldeen hedatu zen jaurerria, dohaintzak jasota, noski, baina baita eresketa-politika jakin baten ondorioz ere (Aragoiko Cinco Villas). Batasunik gabeko domeinu sakabanatuari osotasun batua ematen ahalegindu ziren Abadeak, mende hartako lehen erdi-aldian, Aragoiko Erregeen laguntzarekin. Aragoiko La Gloria monasterioa ere eraiki zuen La Oliva-k, jaurerri eta guzti, Errege Jaume I.ak hala eskatuta (1224).

Herriak eta ondasunak monasterioaren jaurerrira biltze hori ez zen izan une jakin bateko erabakiren baten emaitza, politika eta prozedura iraunkorragoen ondorioa baizik: lur-sailak erosita, tokiko jaun eta herritarrekiko



harremanak zainduta, jaurerriko ondare sozio-politiko eta ekonomikoa arretaz begiratuta.

XIV. mendeko krisi handia gainera etorri aurretik, Lope Gallur-ekoa Abade zela unerik aberatsenetakoa izan zuen La Oliva-k: izan ere, lehendik eta orduan garrantzizko herriak zituen monasterioak bere jaurerriko mugetan (Zarrakastelu, noski, baina baita Mérida, Murillo el Cuende, Muruzabal Andion edo Zizur Nagusia ere).

Aro Moderno politikoa

Alde ekonomiko horietaz aparte, La Olivako historiak badu alde politiko instituzional jakingarri bat, Nafarroako beste monasterio batzuetan ere egon zena: Aro Modernoan, Nafarroak beregaintasuna galdu ondoren (1512-1515), Errege gaztelauak ezarri nahi izan zuten gobernu-kontrolarena, alegia.

XVII. mendean nabaria izan zen monasterio hau ere Gaztelako gobernu-sarean txertatu nahia, eta hemengo monjeek betiko beren tradizio instituzional nafar-aragoitarrari eusteko borondate erabakia. Bi ildotan ageri zen Koroak monasterioan ezarri nahi zuen politika berria: Abadeak hautatu eta izendatzeko prozeduran, eta monasterio zistertarren eraketa-sare berriua Gaztelatik gobernatzeko gogoan.

Jada XVI.lean hasita (1536), izendapenetan Koroaren esku hartzeak ondorio txarrak ekarri zituen La Olivaran (155-1563), eta bi Kongregazio edo Monasterio-Elkarte kontrajarriren artean aukeratu beharrak gatazkak areago eramane zituen. Lehen aldian, Nafarroako zistertarrak Gaztelako Kongregazioarekin lotu nahi izan zituen Koroak (1585-1634), baina azken

urte honetatik aurrera monasterio zistertar nafarrek Nafarroa-Aragoiko Kongregazioko parte izaten jarraitu zuten, Erdi Aroko arrastoari segida emanez.

Hondamendia eta bizi-nahia

Iraultzaaren Frantzia urruneko gertakariak laster ukitu zuten La Oliva, izan ere Konbentzioko Gerran zaurituentzako ospitale bihurtu baitzen monasterioa (1794); Gerrate Napoleondarrean, ostera, armada frantsesak, Dagut jeneralaren aginduetara, arpilatu egin zuen La Oliva (1808ko irailean).

Orduan bertan (1809) eta ondoko hamar-kadetetan (1821, 1835) Lege eta dekretuek behin eta berriz sakabanatu zuten monje-taldea, eta azken data horretan, komunitatea barreiatzearekin batera ezarri zen desamortizazio-legea, aurreko mendeetan sortutako ondarea eta gobernu-sistema eliztar-zibila erabat desginda. Orduan amaitu zen La Olivako lehen historia, osorik Erregimen Zaharrari atxikita zegoena.

1835ean parentesi handi bat ireki zen, La Oliva-ko monasterioa monje eta bizilagunik gabe geratu zenean: eraikinak hondatuz joan ziren, harlandu ederrek inguruko herrietako eraikinetarako balio izan zuten, belarrak eta sasiak estali zuten eraikina, harik eta 1926an Komunitate erlijioso batek, Aldundiaren laguntzarekin, hondakinetatik betiko eta gaurko monasterioa jaso zuen arte. Zistertarrak berriz ere La Olivaran daude, *Trapa*-ko araubide hertsian bizi direla.

Joseba Intxausti